

Francisco Arteche | Kontseilari Delegatua

Bereziki harro sentitzeko moduan gaude 2016ko emaitzak direla eta, Euskaltel Taldeak diru-sarreratan, bezero-kopuruan eta errentagarritasunean izan duen hazkunde sendoa erakusten baitute aurreko ekitaldiko datuek, eta, batez ere, gure akziodun, bezero eta merkatuarekin dugun konpromisoa bete egin dugula adierazten baitute.

Igo egin ziren diru-sarrerak, 573 milioi euroraino, bezero baliiodunen altakopuru garbiak merkatu masiboan izan zuen hazkundeari esker. Berretsi egiten du emaitza horrek zuzena izan dela gure estrategia komertziala, hots, balio handiko produktuei ematea lehentasuna.

Berritu egin genuen, 2016an, eskaintza bateratua, zeinak hobekuntzak ekarri dituen, batez ere telefonia mugikorraren eta telebistaren alorretara. Malgutasuna du ezaugarri nagusi eskaintza bateratu horrek: aukera ematen die bezeroei beren premien arabera konfiguratzeko zerbitzuak. Estrategia hori dela medio, bezero-kopuru osoaren % 66ra iritsi zen urte-amaieran hiruzpalau produktu zituztenen portzentajea.

Horra aurreko ekitaldiko datuak; orain, 2017an egin behar duguna aipatu nahi nuke. Hain emaitza onak ekarri dizkigun estrategia horrekin jarraitzea da gure asmoa, bezeroaren gogobetetze-maila hobetzen duten zerbitzu berriak eskainiz. Horrekin batera, sendotu egin nahi dugu enpresaren alorra, haien benetako zerbitzu-hornitzaile izan gaitezen, bakoitzaren neurrirako konponbide integralak prestatuz.

Azkenik, orain arteko dibidendu-politika iraunkor eta gorakorrari eustea da gure asmoa.

Ziur gara bete egingo ditugula helburu horiek guztiak, orain arte bezala, bezeroen, akziodunen eta gure lantaldeen jarduera bikainari esker.